

eman to zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS



HIZKUNTZALARITZA TEORIKOA ETA ESPERIMENTALA MASTERRA

www.ehu.eus

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Esperimentala masterrak hizkuntzalaritzaren ikuspegi orokor eta integratzaile bat ematen du. Master honen bidez, ikasleek gaitasunak eskuratzen dituzte hizkuntzalaritzaren eremu teorikoetan eta esperimentaletan. Gainera, hizkuntzalaritzaren atal garrantzitsuenetan espezializatzeko aukera dute: Fonetika eta Fonologia, Sintaxia eta Morfologia, Semantika eta Pragmatika, Tipologia, Hizkuntzalaritza Historikoa eta Konparatua, Psikolinguistika eta Neurolinguistika. Bestetik, masterraren izaera integratzaileari esker, hizkuntzalaritza arloak konbinatu daitezke, haren alderdi

sinkronikoan eta diakronikoan, lan multidiziplinarrak egiteko.

Masterrean eskuratutako prestakuntzari esker, ikasleak gai izango dira edozein hizkuntzaren propietateak aztertzeko (gure kasuan euskara sakon aztertzeak ematen duen balio erantsiarekin). Masterra ikerketa lanari begira sortu da nagusiki, doktorego aurreko urrats gisa.

English friendly master: Ikasleek klaseak gaztelera jarraitzeko ahalmena izan behar dute, baina ebaluazioak ingelesez egiteko aukera izango dute.

SARBIDEA

Ikasleek oinarrizko ezagutzak izan behar dituzte hizkuntzalaritzan, hainbat gradutan eskuratzen direnak: Filologia, Hizkuntza Modernoen eta Klasikoen Ikasketak, Hizkuntzalaritza, eta Itzulpengintza eta Interpretazioa. Masterra egokia da ere hizkuntzaren giza ahalmenaren azterketa zientifikoan interesatuta dauden beste gradu batzuetako ikasleentzat: Filosofia, Logika, Psikologia, Irakasle ikasketak (Atzerriko Hizkuntza). Masterra egin nahi duten hautagai guztiek asmo eta konpromiso gutuna aurkeztu behar dute, hizkuntzalaritza ikasteko dituzten arrazoiak eta jakin-nahiak azalduta.

IRTEERA PROFESIONALAK

- Hizkuntzalaritzaren eremu teorikoan eta esperimentalean ikertzea.
- Unibertsitate irakaskuntza.
- Hizkuntzaren industriak (hizkuntzekin erlacionatutako produktuak eta zerbitzuak: hizkuntzen irakaskuntza, hizkuntza plangintza, prozesamendu formala, hizketaren patologiak, itzulpen automatikoa, adimen artifiziala, etab.).

MASTERRARI BURUZ

Irakaslekua:

Letren Fakultatea (Vitoria-Gasteiz).

Irakaskuntza modalitatea:

Ikasgelakoa.

Irakaskuntza hizkuntza:

Gaztelera eta ingelesa (English friendly master: azterketak eta lanak ingelesez entregatzeko aukera izango da).

Gutxi gorabeherako prezioa: 1.600-1.800 €

Egutegia:

Irailaren 15etik ekainaren 15era bitartea. Goizeko saioak (10.30etik 13.30era). Arratsaldeko saioa (15.00etatik 18.00etara).

ESKOLA ORDUAK

Nahitaezko
gaiak
21 ECTS Kreditu

Hautazko
gaiak
27 ECTS Kreditu

Master
Amaierako Lana
12 ECTS Kreditu

Guztira
60 ECTS Kreditu

PROGRAMA

Gaiak tituloak duen hizkuntzan irakasten dira.

Nahitaezko gaiak:

- Fundamentos de Fonética y Fonología
- Fundamentos de Lingüística Histórica y Comparada
- Fundamentos de Psicolingüística y Neurolingüística
- Fundamentos de Tipología
- Fundamentos de Semántica y Pragmática
- Fundamentos de Sintaxis y Morfología
- Metodología de la Investigación Lingüística

Hautazko gaiak:

- Advanced Course in Phonetics and Phonology
- Curso Avanzado en Lingüística Histórica y Comparada
- Advanced Course in Psycholinguistics and Neurolinguistics
- Advanced Course in Typology
- Advanced Course in Semantics and Pragmatics
- Advanced Course in Syntax
- Research Seminar in Language Acquisition
- Seminario de Investigación en Lingüística Histórica y Tipología I: Teorías y métodos
- Seminario de Investigación en Lingüística Histórica y Tipología III: Nuevas perspectivas
- Research Seminar in the Neurocognition of Language
- Research Seminar in Language Processing
- Research Seminar in Formal Linguistics I: Advanced Topics
- Research Seminar in Formal Linguistics II: Latest developments

HARREMANETARAKO

Masterraren arduraduna:
Mikel Santesteban Insausti
Telefonoa: 945013842
Eposta: linguistics@ehu.eus

Idazkaritza:
Vanesa del Corral
Telefonoa: 945013651
Eposta: vanesa.delcorral@ehu.eus

PARTNER WITH A COOPERATION AGREEMENT

vicomtech
visual interaction & communication technologies



<https://www.ehu.es/eu/web/master/hizkuntzalaritza-teoriko-esperimental-masterra>